

2022ko uztailan Euskal AEko landa-ostatueta erregistratutako sarrerak eta gualdiak % 27,7 eta % 19,6 igo dira, hurrenez hurren

Apartamentu turistikoetan sarrerak % 76,7 gehitu dira, eta gualdiak % 54,8

Eustaten datuen arabera, 2022ko uztailan 24.385 sarrera eta 72.040 gualdi izan dituzte Euskal AEko **landa-ostatuak**; hau da, % 27,7 eta % 19,6 igo dira, hurrenez hurren, urte batetik bestera. 2019ko uztailarekin alderatuta, COVID-19aren aurretik, 2.914 sarrera eta 7.578 gualdi gehiago erregistratu dira.

Insertatabla_19423

2022ko uztailan Euskal AEko landa-ostatueta erregistratutako sarreren % 70,4 eta gualdien % 72,2 Estatukoak izan dira. Hala ere, aurreko hilabeteetan bezala, atzeritar jatorriko pertsonen sarrera eta gualdien hazkundera bereziki esanguratsua izan da: 5.025 sarrera eta 14.425 gualdi gehiago erregistratu dira aurreko urteko uztailan baino.

2022ko uztailako urte arteko igoerak, sarrera eta gualdiei dagokienez, % 27,3 eta % 12,4koak izan dira, hurrenez hurren, Araban. Bizkaian % 53,0 gehitu dira sarrerak, eta % 35,6 gualdiak. Azkenik, Gipuzkoan, 2021eko uztailaren aldean, % 12,6 gehitu dira sarrerak, eta % 13,4 gualdiak.

Horrelako establezimenduetan 2,95 egunekoa izan da batez besteko egonaldia 2022ko uztailan, 2021eko hil berean erregistraturiko 3,15 egunekoa baino laburragoa.

Plazakako eta logelakako okupazio-mailek ehuneko 5,1 eta 6,0 puntuko urte arteko hazkundeak izan dituzte, hurrenez hurren. Plazaka neurtzean % 48,7an eta logelaka neurtzean % 53,1ean kokatu dira.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko uztailan**, sarrerak eta gualdiak 19.070 eta 60.449 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko uztailaren aldean, sarreren urte arteko hazkundera % 76,7koa izan da, eta gualdiena % 54,8koa. 2019ko uztailarekin alderatuta, COVID-19aren aurretik, 8.126 sarrera eta 20.813 gualdi gehiago erregistratu dira.

Insertatabla_19424

Atzeritar jatorriko bisitarien kopurua, 2022ko uztailan, sarrera guztien % 44,0 eta gualdien % 41,0 izan da Euskal AEko apartamentu turistikoetan; urte arteko 5.903 sarrera gehiago izan dira, eta 16.134 gualdi gehiago, atzerriko jatorrikoak.

Horrelako establezimenduetan izandako batez besteko egonaldia 3,17 egunekoa izan da 2022ko uztailan, 2021eko uztailakoa (3,62 egun) baino laburragoa.

Lurraldeei dagokienez, batez besteko egonaldia 5,84 egunekoa izan da Araban 2022ko uztailan, 3,97 egunekoa Gipuzkoan eta 2,44 egunekoa Bizkaian.

Euskal AEn, plazen okupazio maila % 45,8koa izan da, hau da, ehuneko 10,0 puntu igo da 2021eko uztailearen aldean. Apartamentuen arabera neurtuta, okupazio-maila % 62,6koa izan da, urte arteko ehuneko 12,3 puntuko igoeraren ondoren.

Informazio-oharrak

Landa-ostatuaren ETHIren erantzun-tasa % **90,7** izan da, eta Apartamentu Turistikoena % **80,0**, 2022ko uztailean.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginarengatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62